



## **2022KO UZTAILAREN 3AN SAN MARTZIALGO ZELAIKO KANTINAREN ETA TXOSNAREN USTIAPENA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZAK**

### **1. Deialdiaren xedea:**

Deialdi honen xedea da 2022ko uztailaren 3an San Martzialgo zelaian irekiko den kantinaren eta jarriko den txosnaren ustiapena adjudikatzea.

### **2. Eskakerak:**

Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultur edo kirol elkarteek, herri-taldeek eta ongintzako elkarteek aurkez ditzakete eskaerak, eta baita ere Bergaran delegazioa izan eta udalerrian urtean zehar herritarrei zuzendutako ekintzak burutzen dituzten elkarteek, lehentasuna izango dutelarik kultura, kirola, hezkuntza edo irakaskuntza eta ongintza helburu dituzten herriko taldeek, baina betiere azken hauek aurreko urtean San Martzial egunean txosnaren edo kantinaren adjudikazio-hartzaile izan ez badira.

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera.

Eskaera idatziz aurkeztuko da horretarako honi erantsitako inprimakia derrigorrez erabilita.

Eskaera aurkeztearekin soilik ulertuko da txosnaren jardueraren erantzukizun osoa eta baldintzak betetzearen erantzukizuna eskatzaileak bere gain hartzen duela.

Eskaerak aurkezteko epea **ekainaren 21ean** 12:00etan bukatuko da, eta udaletxeko B@Z zerbitzuan aurkeztu beharko dira.

### **3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak:**

- a) Jendaurrean lana egin behar dutenek euskaraz hitz egiten jakin beharko dute.
- b) Ezin izango da musikarik jarri.
- c) Kartel edo antzekoei dagokienean:
  - Kantina- edo txosna-gunean ezingo da jarri pertsonak edo taldeak iraintzeko edo gutxiesteko aipamenak dituen kartelik, irudirik edo antzekorik; eta bateren bat agertuz gero, berehala kentzeaz arduratuko da.
  - Kantina- edo txosna-gunean ez da irudi/esaldi sexistarik jarriko; eta bateren bat agertuz gero, berehala kentzeaz arduratuko da.
  - Udalak "jaietan ere ez dugu inongo erasorik onartuko" lemapean ateratako kartelak leku ikusgarrian jarriko dira txosnetan eta jendeak hartzeko lekuan utziko dira eraso matxista kasuetan jarraitu beharreko protokoloa azaltzen duten txartelak.
  - Ustiatzen duen taldearen izena eta prezioak jasotzen dituzten kartelak bakarrik jarri ahalko dira, azken hauek derrigorrezkoak izanik.
  - Eman beharreko informazioa (prezioak...) euskara hutsean edo ele bietan egingo da. Ele bietan balitz, euskarari lehentasuna emanez egin beharko da.

- d) Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak (Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak) ezarritakoaren arabera, debekatuta dago 18 urtetik beherakoei edari alkoholikoak eta tabakoa saltzea; **BERAZ, HORI BETE EGIN BEHARKO DA ETA HORRI BURUZKO KARTELA IKUSTEKO MODUKO TOKIAN JARRI BEHARKO DA.**
- e) Kantina eta txosna goizeko bederatzietarako irekita egon beharko dira eta "jaitsierarekin" batera itxi.
- f) Utzitako baldintza berdinetan bueltatu beharko dira, uztailaren 4rako kantinaren kasuan eta uztailaren 5 goizean goiz txosnaren kasuan.
- g) Adjudikazio-hartzaileek arduradun bat izendatu beharko dute udalarekiko harremanetarako.  
Izendapen hau idatziz egin beharko da eta udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko da, adjudikazioaren berri jasotzen dutenetik kontatzen hasi eta 5 egun naturaleko epean.
- h) Zinegotzi, dantzari, txistulari eta bertsolariei salda, txorizoa, haragia, ogia eta ardoa eskainiko diete kantinaren adjudikazio-hartzaileek soka-dantzaren ondoren, eguerdi inguruan. Kantu saioan parte hartzen dutenei ere, 10 ardo botila eskainiko dizkiete adjudikazio-hartzaileek.
- i) Kantinaren eta txosnaren ustiaketarekin zerikusi zuzena duten eta Udalak eskatutako bestelakoak.
- j) Egun horretarako behar den generoa batzeko, bestelako behin-behineko instalazio edo eranskinik beharko balute adjudikazio-hartzaileek, beren kontura muntatu eta kendu beharko dute eta lokala hustu beharreko epe berean kendu beharko dute.
- k) Edalontzi berrerabilgarriekin egin beharko da lan, derrigor. Behar izanez gero udalak baditu eta Kultur Zerbitzuan jaso ahal izango dira. Garbiketa egin behar dela-eta, dagokion kostua ordaindu beharko da, udaletik dagokion faktura bidaliko zaielarik, eta, bestalde, bueltatu ez den edalontzi bakoitzeko euro bat ordaindu beharko da.
- l) Sortzen diren hondakinak ongi sailkatuta biltzen direla ziurtatu beharko da. Horretarako zailtasun bereziak egon daitezkeela uste bada, Debagoieneko mankomunitateko hondakinen zerbitzura jo daiteke  
Bestelako eskaerarik ez badago, udalak ontzi arinak eta papera biltzeko edukiontzia jarriko dizkie eskura, eta adjudikazio-hartzailea arduratuko da betetako ontziak udalak antolatutako hondakinak jasotzeko guneetara jarritako ordutegian eramateaz.
- m) 375 euroko fidantza jarri beharko dute **ekainaren 28ko 12:00ak baino lehen**

#### **4. Adjudikazioa:**

Eskaera-orrian kontrakorik azaltzen ez bada, eskaera aurkeztu dutenek kantinarako eta txosnarako eskaera egiten dutela ulertuko da.

Zozketa bidez egingo da ustiapenen adjudikazioa, **ekainaren 22an, 13:30**, udaletxeko Kerexeta gelan.

Zozketaren emaitza udaleko iragarki taulan eta web orrian gunean ere hurrengo egunean argitaratuko da.

Eskaera aurkeztu dutenen artean lehentasuna dute aurkeztutakoen artean kultura, kirola, hezkuntza edo irakaskuntza eta ongintza helburu dituzten herriko taldeek.

Eskaera aurkeztu dutenen artean baldintza horiek betetzen dituenik ez balego, aurkeztutako guztien artean egingo da zozketa. Aurkeztu diren guztiak aterako dira eta atera ahala zerrenda egingo da.

Eskaera-orrian aukeratutako lehentasunaren arabera, zozketan lehena ateratzen duenari emango zaio kantina edo txosna aukeratzeko aukera.

Ustiapena konpartitzea posible izango da, baldintza hauekin:

1. Zozketaren arabera adjudikazio-hartzaile suertatu direnen oniritzia beharko da, eta idatziz aurkeztu beharko da udaletxean.
2. Zozketaren ondorioz egindako zerrenda errespetatu beharko da; hau da, konpartitzeko lehentasuna izango dute 3.ak, 4.ak eta abarrek.
3. Konpartitzea erabaki badute, horren berri eman beharko dute udaletxean.

#### **5. Ustiatze-eskubidea:**

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango dio ustiatze-eskubidea beste edozein talde, elkarte eta abarri eskualdatu. Interesik ez balu, 2022ko ekainaren 24a baino lehen Bergarako Udalari idatziz jakinarazi beharko lioke eta honek zozketan erreserbarako atera den hurrengoari adjudikatuko dio.



## **CONDICIONES QUE REGIRÁN LA EXPLOTACIÓN DE LA CANTINA Y DE LA CHOZNA DE LA CAMPA DE SAN MARCIAL EL DÍA 3 DE JULIO DE 2022**

### **1. Objeto de la convocatoria:**

Es objeto de la presente convocatoria la adjudicación de la explotación de la cantina y de la chozna que se instalará en la campa de San Marcial el 3 de julio de 2022.

### **2. Solicitudes:**

Podrán presentar sus solicitudes todas las entidades culturales o deportivas, agrupaciones populares y asociaciones benéficas bergaresas sin ánimo de lucro, teniendo prioridad las agrupaciones locales con fines culturales, deportivos, educativos o docentes, o de tipo benéfico, siempre que no hayan resultado adjudicatarias el año anterior

La persona que suscriba la solicitud deberá ser mayor de edad y con plena capacidad de obrar.

En caso de que la entidad, asociación o agrupación estuviera constituida mayoritariamente por menores de edad, la solicitud la deberá presentar la persona con plena capacidad de obrar que haya sido designada como su representante legal.

Por otra parte, se considerará que es la persona solicitante la que asume toda la responsabilidad de la actividad de la cantina o chozna y del cumplimiento de las condiciones; salvo en el caso de asociaciones, entidades o agrupaciones constituidas mayoritariamente por menores de edad, en cuyo caso será desestimada la solicitud.

El plazo para la presentación de solicitudes finalizará el día **21 de junio a las 12:00 horas**.y se entregarán en el servicio de B@Z del ayuntamiento.

### **3. Obligaciones de la persona o entidad adjudicataria:**

- a) Las personas que trabajen de cara al público deberán saber hablar en euskera.
- b) No se podrá poner música.
- c) En cuanto a carteles y similares:
  - En el espacio de la cantina o de la chozna no podrán colocarse carteles, imágenes ni similares que insulten o aludan de forma denigrante a personas o grupos, y en caso de que aparezca alguno se responsabilizará de retirarlo inmediatamente.
  - En el espacio de la cantina o de la chozna no podrán colocarse imágenes ni frases sexistas; y en caso de que aparezca alguna, se responsabilizará de retirarlo inmediatamente.
  - Los carteles editados por el ayuntamiento con el lema “jaietan ere ez dugu inongo erasorik onartuko” deberán colocarse en las choznas en lugar bien visible. Así mismo, las tarjetas que indican el protocolo a seguir en caso de ataque machista deberán estar a disposición del público, en lugares de fácil acceso.

- Únicamente podrán colocarse carteles con el nombre de la agrupación adjudicataria y con los precios, siendo este último obligatorio.
  - La información que haya de exponer (precios...) irá en euskera o en bilingüe, dando trato prioritario al euskera en este último caso.
- d) Conforme a lo establecido por la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias, está prohibida la venta de alcohol y tabaco a menores de 18 años, LO CUAL SERÁ DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO, DEBIENDO COLOCARSE UN CARTEL BIEN VISIBLE INDICANDO DICHA PROHIBICIÓN.
- e) La cantina y la chozna deberán estar abiertas para las nueve de la mañana y cerrarse con la "bajada".
- f) Se deberán devolver en las mismas condiciones en las que se entregan, en el caso de la cantina el 4 de julio y en el de la chozna el 5 de julio a primera hora de la mañana.
- g) Las agrupaciones adjudicatarias deberán nombrar a una persona como encargada de las relaciones con el ayuntamiento.
- Dicho nombramiento deberá realizarse por escrito y ser presentado en las dependencias de Secretaría, en el ayuntamiento, en un plazo de 5 días naturales a partir de la notificación de la adjudicación.
- h) Los adjudicatarios de la cantina, al mediodía, después de la soka-dantza, deberán ofrecer caldo, chorizo, carne, pan y vino a los miembros de la Corporación, dantzaris, txistularis y bertsolaris. Deberán suministrar así mismo 10 botellas de vino a los que participan en la sesión de canto.
- i) Cualquier otra petición que reciba del Ayuntamiento y que esté directamente relacionada con la explotación de la cantina y de la chozna.
- j) Si las personas o entidades adjudicatarias necesitaran de alguna otra instalación o anexo provisional para almacenar el género para ese día, deberán montarlo y desmontarlo por su cuenta, debiendo quedar retirado en el mismo plazo concedido para vaciar el local.
- k) Deberán utilizarse obligatoriamente vasos reciclables. En caso preciso, el ayuntamiento dispone de ellos y podrán recogerlos en el Servicio de Cultura. Deberán abonar el coste de su limpieza y les será girada la factura correspondiente desde al ayuntamiento, y además, por cada vaso que no se devuelva deberán abonar un euro.
- l) Se deberá asegurar la correcta clasificación de los residuos generados. Si se considera que puede haber especial dificultad para ello, puede acudir a la oficina de información de residuos, donde podrá obtener guías, glosarios o carteles para facilitar la correcta clasificación de los residuos.
- Si no hay petición en otro sentido, el ayuntamiento pondrá a su disposición contenedores para la recogida de envases ligeros y papel, y serán los/as adjudicatarios/as quienes habrán de encargarse de llevar los contenedores llenos, en el horario que se establezca, a los puntos de recogida de residuos que disponga el ayuntamiento.
- m) Deberán depositar una fianza de 375 euros, antes de las **12:00 horas del 28 de junio**.

#### **4. Adjudicación:**

Si no se indica lo contrario en la solicitud, se entenderá que quienes la presentan lo hacen tanto para la cantina como para la chozna.

La adjudicación de las explotaciones se determinará por sorteo el día **22 de junio, a las 13:30 horas**, en el ayuntamiento.

El resultado del sorteo se publicará el mismo día en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la pagina web.

En el sorteo tendrán prioridad las agrupaciones locales con fines culturales, deportivos, educativos o docentes, o de tipo benéfico.

Si ninguno de los que hubieran presentado solicitud reuniera tal condición, se procederá a la realización del sorteo entre todas las solicitudes presentadas. Se irán sacando todas las solicitudes presentadas, conformando un listado por orden de extracción.

La primera solicitud que se extraiga en el sorteo tendrá preferencia en la adjudicación de la cantina o de la chozna, según la opción señalada como preferente en la solicitud.

Existe la posibilidad de compartir la explotación con las siguientes condiciones:

1. Se requerirá la conformidad de quienes hayan resultado adjudicatarias en el sorteo, debiendo comunicarlo al ayuntamiento por escrito.
2. Se deberá respetar el listado derivado del sorteo, esto es, tendrán preferencia para compartir el 3º, el 4º, etc.
3. En caso de que decidan compartir la adjudicación deberán comunicárselo al ayuntamiento.

#### **5. Derecho de explotación:**

La persona o entidad adjudicataria no podrá ceder el derecho de explotación a ningún otro grupo, asociación, etc. En caso de no estar interesada, deberá comunicarlo antes del 24 de junio de 2022 al Ayuntamiento de Bergara, que adjudicará la explotación a la solicitante que haya quedado en reserva en el sorteo en el siguiente lugar.